# [Eusk/Cast] Aparece muerto un preso social vasco en la cárcel de Burgos

SALHAKETA ARABA :: 28/01/2014

Queremos denunciar la sistemática política de ocultamiento de estas muertes de las que no se facilita ningún tipo de información pública.

**Euskera**

PRESO ZEGOEN PERTSONA BAT HILIK AGERTU DA BURGOSEKO KARTZELAN

Bere familiak adierazi duen arabera, preso zegoen pertsona bat, gizonezkoa, Bizkaiko bizilaguna, pasa den 2014ko urtarrilaren 12an Burgoseko espetxean, bere ziegan urkatuta agertu zen. J.G.R.-z ari gara, 25 urte zituela eta gutxi barru zigorraren denbora beteko zuela.

Gertaera tamalgarri honek iragarritako heriotzen kronika berri bat irudikatzen du, beste aldietan salatu egin dugun legez.

Heriotza hauen ezkutatze politika sistematikoa salatu nahi dugu. Heriotza hauen inguruan ez da informazio publikorik ematen heriotza ez naturalen aurreko zigorgabetasun-estrategiaren parte gisa. Hilketa hauek instituzio publikoen baitan eta hauekin euste-erlazio berezi bat mantentzen duten, zeinen osasunerako eta bizitzeko eskubidea soilik eta esklusiboki instituzio hauen menpe dagoen gazte hauen bizitza akabatzen ari dira. Zer gertatzen ari da? Zergatik ezkutatzen ari dira heriotza hauek? Zergatik ez da erantzukizunik eskatzen edo ez dira behintzat ikertzen? Berdina gertatuko litzateke biktimak beste batzuk izango balira? Heriotza hauek estatuaren espetxe-sistemaren gisako instituzio baten baitan zigorrik gabe onartu daitezke?

Kezkatu egiten gaitu eskumena duten agintari judizialen aldetik heriotza horien inguruabarrak argitzeko inolako ekimenik ez egoteak. Gehienak pertsona gazteak izaten dira, eta ez dugu ahaztu behar lotura berezia izaten dutela estatuko administrazioarekin. Administrazio horren ardura da, besteak beste, pertsona horiek bizitzeko duten eskubidea bermatzea. Egoera hau onartezina da; batez ere, heriotza horietako gehienak saihesteko, indarrean dagoen egungo legeria zorrotz betetzea aski denean.

Beste behin ere, Espetxeen Zuzendaritza Orokorrari, Barne-arazoetako Ministerioari eta Gobernuari egoera latz honekin nola amaituko duen galdetzen diegu. Benetan zenbat heriotza egon diren galdetuko diegu, nortzuk ziren hildakoak, zergatik hil ziren, zer prebentzio-neurri ezarri ziren, zergatik ez ziren askatu gaixotasuna oso aurreratuta zeukaten pertsonak, zergatik egiten duten okerrera oro har bizi-baldintzek eta zehazki osasun-baldintzek, zer egiten ari diren pilaketarekin, nola den posible hainbeste pertsona preso egotea buruko eritasun larriekin eta horietako gehien-gehienak diagnostiko eta tratamendurik gabe, zergatik ez duten betetzen beren legeria bera preso dagoen pertsonaren mesedetan denean, eta zergatik egiten diren gehiegikeriak legeria betetzean

preso dagoen pertsonaren kaltetan denean... Erantzunik gabeko galdera gehiegi daude.

**Heriotza horiek amaitzeko, neurri zehatzak hartzea eskatzen dugu. Honelakoak:**

- Fiskaltza ez dadila aldendu eta ofizioz iker ditzala heriotza horiek. Gehienak egoera bitxietan gertatzen dira. Hori egitea Fiskaltzari dagokio, heriotzen inguruabarrak eta zergatiak argitzeko, eta gertakari horien erantzukizun politiko, administratibo eta penalak azaleratzeko.

- Zehapen eta espetxe legeria berehala berritu dadila, beharrik gabe luzatzen baititu zigorrak, eta mugatu egiten baitu irteteko baimenak, hirugarren gradua eta baldintzapeko askatasuna lortzea. Askatasuna kentzeko zigorrei legeak aitortzen dien azken xedearekin bat datozenak, zigorra betetzeko era horiek dira. Horrela, preso dauden pertsonek jasaten duten presioa eta tratu txar psikologikoa txikiagotu egiten da.

- Preso dauden pertsonen kopurua presondegi bakoitzaren gaitasun egokienera murriztu dadila, egungo masifikazioa ekiditeko; izan ere, heriotza horietan eragina duen arrazoietako bat da, bakarra ez den arren. Eta, orobat, zigorrak ohiko bizilekutik hurbilen dagoen zentroan bete daitezela.

- Gaixotasun larriak izanik preso dauden pertsonak aska daitezela: bereziki, fase terminalean daudenak. Eta buruko eritasunak dituztenak ere bai, askotan beren buruaz beste egitera eramaten baititu horrek. Pertsona horiek zaintza bereziak eta medikuen segimendua behar dituzte, eta horiek ez dira bateragarriak kartzelarekin, askotan desoreka arazoak eta buruko eritasunak eragiten baitituzte.

- Inkomunikazio eta isolamendu araubideak amai daitezela. Tortura edo/eta tratu txarrak gertatzeko zigorgabetasun-gune horiek, aldi berean, buruko eritasun jakin batzuk sortu edo/eta larriagotzeko arriskuko lekuak dira. Isolamendua, berez, errotik kendu beharreko tortura psikologikoa da.

SalHaketa Bizkaia

D/Uribarri 2, 3.º dcha., 48007, Bilbao | Telf.: 944464100 | Email: salhaketa@salhaketa.euskalnet.net

SalHaketa Araba

C/Florida 37, 2.º A, 01005, Gasteiz | Telf.: 945272004 | Email: salhaketa-araba@salhaketa.org

---

**Castellano**

APARECE MUERTA UNA PERSONA PRESA EN LA CÁRCEL DE BURGOS

Según fuentes de su propia familia, una persona presa, varón, vecino de Bizkaia, apareció el

pasado día 12 de enero de 2014 ahorcado en la prisión de Burgos en su celda. Se trata de J.G.R., de 25 años de edad, que pronto iba a cumplir el tiempo de la condena por la que se encontraba recluido en prisión.

Este hecho luctuoso, no notificado por Instituciones Penitenciarias, representa una nueva crónica de muertes anunciadas en las cárceles tal y como hemos venido denunciando.

Queremos denunciar la sistemática política de ocultamiento de estas muertes de las que no se facilita ningún tipo de información pública, como parte de la estrategia de impunidad ante las muertes no naturales que está acabando con la vida de estos jóvenes en el seno de instituciones públicas con las que mantienen una relación de sujeción especial y cuyo derecho a la salud y a la vida depende única y exclusivamente de las mismas. ¿Qué está pasando? ¿Por qué se ocultan estas muertes? ¿Por qué no se exigen responsabilidades o al menos se investigan? ¿Ocurriría lo mismo si las víctimas fueran otras? ¿Se pueden tolerar impunemente estas muertes en el seno de una institución del estado como es el sistema penitenciario?

Nos preocupa la nula iniciativa de actuación por parte de las autoridades judiciales competentes para esclarecer las circunstancias de estas muertes por causas no naturales, en su gran mayoría de personas jóvenes que no lo olvidemos mantienen una relación de sujeción especial con la administración del estado y, éste, tiene la obligación de garantizar entre otros, su derecho a la vida. Esta situación es inaceptable, sobre todo cuando la mayoría de esas muertes podrían evitarse, simplemente, con la aplicación estricta de la actual legalidad vigente.

Una vez más preguntamos a la Dirección General de Prisiones, al Ministerio de Interior y al Gobierno cómo va a terminar con esta terrible situación. Le preguntaremos cuántas muertes han ocurrido realmente, quiénes eran los muertos, cuales fueron las causas, qué medidas preventivas se establecieron, por qué no se excarceló a personas en avanzado estado de enfermedad, por qué las condiciones de vida en general y sanitarias en particular empeoran, que está haciendo con respecto a el hacinamiento, cómo es posible que haya tantas personas presas con enfermedades mentales graves y la gran mayorías de ellas sin diagnóstico ni tratamiento, por qué no cumple su propia legalidad cuando esta lo es en beneficio de la persona presa y se excede en su cumplimiento cuando lo es en su perjuicio... son demasiadas las preguntas sin responder.

**Para acabar con estas muertes reclamamos medidas concretas tales como:**

- Que el Ministerio Fiscal no se inhiba e investigue de oficio estas muertes la mayoría de ellas en extrañas circunstancias, tal y como le corresponde, para el esclarecimiento de las circunstancias y motivos las mismas, con le fin de depurar las responsabilidades políticas, administrativas y penales que se desprendan de estos hechos.

- La inmediata excarcelación de las personas presas gravemente enfermas, en especial aquellas en fase terminal, así como las que padezcan enfermedades mentales que en muchos casos suponen la inducción al suicidio. Estas personas necesitan unos cuidados y un seguimiento médico incompatibles con la cárcel que en muchas ocasiones es genera problemas de desequilibrio y enfermedad mental.

- La inmediata reforma de la legislación penal y penitenciaria que alarga innecesariamente las condenas y restringe el acceso a permisos de salida, tercer grado y libertad condicional que son las formas de cumplimiento más acordes con el objetivo final que la ley otorga a las penas privativas de libertad y que contribuyen a disminuir la presión y mal trato psicológico que sufren las personas presas.

- La reducción del número de reos hasta la capacidad óptima de cada prisión para evitar la actual masificación, que aunque no es el único, si es uno de los motivos que influye en estas muertes, así como el cumplimiento de las condenas en la el centro más cercano al lugar habitual de residencia.

- El final de los regímenes de incomunicación y aislamiento. Estos espacios de impunidad para torturas y/o malos tratos, son a la vez son espacios de riesgo para la aparición y/o agravamiento de determinadas enfermedades mentales, lo que significa que, de por sí, el aislamiento es una tortura psicológica a erradicar.

SalHaketa Bizkaia

D/Uribarri 2, 3.º dcha., 48007, Bilbao | Telf.: 944464100 | Email: salhaketa@salhaketa.euskalnet.net

SalHaketa Araba

C/Florida 37, 2.º A, 01005, Gasteiz | Telf.: 945272004 | Email: salhaketa-araba@salhaketa.org

---

*https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/eusk-cast-aparece-muerta-una-persona-pre*